BIZITEGI ERAIKINA — EASO 67

D MAILA





Egilea eta data: Ramon Cendoya; 1903

Deskribapena.
Mehelin arteko eraikina, behe oina, lau goi oin eta bi jasodura atzeraeman dituena. Harlanduzko fatxada, alboetako muturreko baoetan aluminiozko begiratokiak dituena. 1921ean fatxadaren baoetako bat zabaltzea proiektatu zen. Jatorrizko proiektu komuna Easo 65ekin eta Easo 69rekin (azken hori gaur egun multzoa hausten duen eraikin batekin ordezkatu da).

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (5. eta 6. goi oinak); begiratokiak (gaur egungoa).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokien tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak.